TOLOSAKO
UDALA

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA, TOLOSAKO UDALAREN UDAL AURREKONTUAREN DISEINUAN, GARAPENEAN ETA EBALUAZIOAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO PROZESUA HASTEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUENA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ ESLEITU BEHARREKOA.

SARRERA

Agiri honen xedea da Tolosako Udalaren udal-aurrekontuaren diseinuan, garapenean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzeko prozesua hasteko laguntza teknikoko zerbitzuaren kontratua esleitzeko baldintza teknikoak zehaztea.

1.- PROIEKTUAREN AURREKARIAK

Tolosako Udalak, 2013. urtetik aurrera eta bertako Berdintasuna Sailak bultzatuta, Udalaren barruan aldaketa prozesu bat bideratzeko apustua egin du, pixkanaka herri politiken diseinuan eta garapenean genero ikuspegi feminista txertatzea ahalbidetuko duten egitura-, administrazio- eta kudeaketa-baldintzak eskaintzeko xedearekin.

Proiektu hau, hasiera-hasieratik, epe labur, ertain eta luzeko aldaketa prozesu gisa sortu zuten, Tolosako Udalaren barruan emakumeen eta gizonen berdintasunerako zeharkakotasun-ekintzak pixkanaka eta modu globalean txertatzeko, betiere udal arlo edo sail bakoitzak duen aurrerabide mailara egokiturik. Proiektu hau estrategikotzat jo zuten Tolosako berdintasunerako politiketan.

Hasiera-hasieratik ikusi zen Udalean genero ikuspegia zeharkakotasunez ezartzeak «prozesu» moduko bat izan behar zuela, sailen araberako umotze-faseak eta erritmoak izango zituena.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES QUE HA DE REGIR EL CONTRATÓ DEL SERVICIO DE ASISTENCIA TÉCNICA PARA INICIAR EL PROCESO DE INCORPORACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN EL DISEÑO, DESARROLLO Y EVALUACIÓN DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA, A ADJUDICAR POR EL PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO.

INTRODUCCIÓN

El objeto de este pliego es especificar las condiciones técnicas para la adjudicación del contrato del servicio de asistencia técnica para iniciar el proceso de incorporación de la perspectiva de género en el diseño, desarrollo y evaluación del presupuesto municipal del Ayuntamiento de Tolosa.

1.- ANTECEDENTES DEL PROYECTO

Desde el año 2013, el Ayuntamiento de Tolosa, impulsado por su Área de de Igualdad, ha apostado por un proceso de cambio dentro del Ayuntamiento para ir implementando progresivamente las condiciones estructurales, administrativas y de gestión necesarias que permitan la incorporación de la perspectiva feminista de género, en el diseño y desarrollo de las políticas públicas.

Este proyecto se gestó, desde su inicio, como un proceso de cambio a corto, medio y largo plazo para la implementación progresiva y global de acciones transversales de igualdad de mujeres y hombres dentro del Ayuntamiento de Tolosa, adaptada a los distintos niveles de progreso de cada departamento municipal. Se consideró un proyecto de carácter estratégico en las políticas para la igualdad de Tolosa.

La implementación de la transversalidad de género, por tanto, se percibió desde su inicio como un «proceso» que requería diferentes fases y ritmos de maduración adaptadas a las áreas municipales.

TOLOSAKO UDALA

Askotarikoak izan dira prozesu horretan zehar bideratutako ekintzak, eta zaila da dokumentu honetan haiek guztiak islatzea. Hala eta guztiz ere, azpimarra jarriko diegu lorpen nagusi batzuei:

Las acciones realizadas en todo este proceso, han sido múltiples, y es complejo reflejar todas y cada una de ellas en el presente pliego. No obstante, es preciso destacar algunos de los hitos principales:

2012: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa (2009-2011).

2012: Evaluación del II Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres de Tolosa (2009-2011).

2013: Egoeraren hasierako diagnostikoa, udal barneko bederatzi prozedura eta faktore esparruri dagokiena.

2013: Diagnóstico inicial de la situación, referente a nueve ámbitos de procedimientos y factores internos municipales.

2014: Banakako jarduera planen identifikazioa, arloka (56 neurri, 9 arlotan banatuta).

2014: Identificación de Planes de Actuación Individualizados por Departamento (56 medidas distribuidas en 9 departamentos).

2015: Emakumeen eta gizonen arteko egoeraren diagnostikoa eta berdintasunerako III. Plana. (2015-2020).

2015: Diagnóstico y III Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres de Tolosa (2015-2020.

2014-2019: Laguntza, planak txertatzerakoan eta jarraipen eta ebaluazio saioetan.

2014-2019: Asistencia en la Implementación de planes, sesiones de Seguimiento y Evaluación.

2016-2017: Politikarientzat eta teknikoentzat berariazko prestakuntza saioak Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaren Printzipioaren Integrazio Prozesuan.

2016-2017: Sesiones de Formación Específicas para el personal político y técnico sobre el Proceso de Integración del Principio de Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres.

2014-2019: Berdintasun irizpideak txertatzea barne prozedura batzuetan: kontratazioetan, dirulaguntzetan, datuen kudeaketan.

2014-2019: Integración de Criterios para la Igualdad en diferentes Procedimientos Internos: contratación, subvenciones, gestión de datos.

2017-2019: Berdintasun irizpideak Udalaren zeharkakotasun-planetan txertatzea: Tolosako Plangintza Partekatua 2017-2027; Mugikortasun Plan Jasangarria; Udal plangintza eta hirigintzakoa.

2017-2019: Integración de Criterios para la Igualdad en Planes Transversales Municipales: Plan Compartido Tolosa 2017-2027; Planeamiento Municipal y de Urbanismo y Plan de Movilidad Sostenible e Igualitario.

2020: Datuak kudeatzea: datuak biltzeko eta ustiatzeko euskarriak egitea. Aurrekontu-programen adierazleak identifikatzea.

2020: Gestión de datos: elaboración de soportes de recogida y explotación de datos. Identificación de indicadores de los programas presupuestarios.

Parte hartzeko eta gardentasunerako Gobernantza Erregelamendua egiteko

Integración de la perspectiva de género en el proceso de elaboración del Reglamento de

prozesuan genero-ikuspegia txertatzea.	Gobernanza para la participación y la transparencia.
2021: Tolosako Udalak bere politika eta prozeduretan zeharkakotasun-estrategia ezartzeko hartutako konpromiso politikoa berritzea eta berrestea.	2021: Renovar y confirmar el compromiso político del Ayuntamiento de Tolosa por la implementación de la estrategia de la transversalidad en sus políticas y procedimientos.
Arlo guztien egoeraren diagnostikoa eguneratzea, genero-ikuspegia beren dinamika eta barne-prozeduretan txertatzeari dagokionez.	Actualización del diagnóstico de situación de las diferentes áreas respecto a la integración de la perspectiva de géenro en sus dinámicas y procedimientos internos.
2022: Udal-sail bakoitzeko jarduera-plan bereizgarrien identifikazioa.	2022: Identificación de planes de actuación individualizados por áreas.
Planak ezartzeko, adierazleak identifikatzeko eta ordenantzetan eta dirulaguntzetan genero-ikuspegia txertatzeko aholkularitza.	Asesoramiento en la implementación de planes, identificación de indicadores y en la integración de la perspectiva de género en ordenanzas y subvenciones.
2023: Sailetako jarduera-planen ezarpenaren jarraipena.	2023: Seguimiento de la implementación de planes de actuación de las áreas.
Genero-eraginaren aurreko ebaluazioak egiteko barne-jarraibidearen zirriborroa egitea.	Elaboración borrador de la instrucción interna para la realización de evaluaciones previas de impacto de género.
2024: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuari buruzko 2 orduko prestakuntza-saioa. Urria.	2024: Sesión formativa de 2 horas sobre el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres. Octubre
Jarraibidea, Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak egitekoa, Tolosako Tokiko Gobernu Batzarrak maiatzaren 6an onartua. Maiatzaren 7an eman zitzaion informazioa Udaleko Osoko Bilkurari.	Instrucción para la realización de las evaluaciones previas de impacto de género, aprobada por la Junta de Gobierno Local de Tolosa el 6 de mayo. El 7 de mayo se informa a el Pleno Municipal.
Prestakuntza-saioa: Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa, Tolosako udal-sailetako teknikariei zuzendua. 3 orduko 2 saio antolatu ziren.	Sesión formativa: Evaluación previa del impacto de género dirigida al personal técnico de las áreas municipales de Tolosa. Se organizaron 2 sesiones de 3 horas. En mayo y junio.
Prestakuntza-saioa: Intersekzionalitatea praktika profesionalean, Tolosako Udaleko	Sesión formativa: Interseccionalidad en la práctica profesional, dirigida al personal

teknikari eta politikariei zuzendua, 3 ordukoa.

2025: Kontratazio-agirietan berdintasunerako klausulak sartzeko jarraibidea egin da. Kontratazio Sailera bidali da, berrikus dezan. Ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari helaraziko zaio, onar dezan. Behin onartuta, prestakuntza saio bat emango zaie udal-sailetako langile teknikoei.

Prestakuntza saioa: Intersekzionalitatea praktika profesionalean II. zatia), Tolosako Udaleko teknikari eta politikariei zuzendua, 3 ordukoa. Urriaren 31n.

Prestakuntza saioa: Kontratazio-pleguetan berdintasun-klausulak sartzeko jarraibidearena. Azaroa.

Beraz, udal-politikan genero-zeharkakotasuna integratzeko estrategian kualitatiboki aurrera egiteko eta, horrela, prozesu honen garapenean helburu garrantzitsu eta esanguratsu bat ezartzeko helburuarekin, 2023-2027 legegintzaldia amaitzeko, Berdintasuna Sailak mugarri gisa planteatzen du Tolosako Udalaren aurrekontuen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzeko prozesu bat hastea.

2025erako planifikatutako jarduketen eta 2026rako hasiera batean aurreikusitako lan-ildoen helburua da inplementazio eraginkor eta arrakastatsuagoa lortzeko oinarriak ezartzea.

2.- ARAU-ESPARRUA

Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.5 artikuluak honako hau ezartzen du: EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, haietan guztietan ezar dadin desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen

técnico y político del Ayuntamiento de Tolosa, de 3 horas.

2025: Se ha elaborado la Instrucción para la incorporación de cláusulas para la igualdad en los pliegos de contratación. Se ha enviado al Departamento de Contratación para su revisión. A continuación, se trasladará a la Junta de Gobierno Local para su aprobación. Una vez aprobado se impartirá una formación a la plantilla técnica de las áreas municipales

Sesión formativa: Interseccionalidad en la práctica profesional Parte II), dirigida al personal técnico y político del Ayuntamiento de Tolosa, de 3 horas de duración. 31 de octubre

Sesión de formación de la Instrucción para la inclusión de cláusulas de igualdad en los pliegos de contratación. Noviembre

Por tanto, con el objetivo de avanzar cualitativamente en la estrategia de integración de la transversalidad de género en la política municipal y establecer así un objetivo relevante y significativo en el desarrollo de este proceso, al finalizar la legislatura 2023-2027, el Área de Igualdad plantea como hito el inicio de un proceso para incorporar la perspectiva de género en el diseño, desarrollo y evaluación de los presupuestos del Ayuntamiento de Tolosa.

Las actuaciones planificadas para 2025 y las líneas de trabajo previstas inicialmente para 2026 tienen como objetivo sentar las bases para una implementación efectiva y con mayores garantías de éxito.

2.- MARCO NORMATIVO

El artículo 3.5, *Integración de la perspectiva de género* del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Vida Libre de Violencia Machista contra las Mujeres, establece lo siguiente: Los poderes públicos vascos han de incorporar la perspectiva de género en todas sus políticas y acciones, de modo que establezcan en todas ellas el

berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.

Lege honen ondorioetarako, hau da genero-ikuspegia txertatzea: sistematikoki kontuan izatea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan diferenteak, eta, horretarako, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera espezifikoak gehitzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horiek planifikatzeko, betearazteko eta ebaluatzeko fase guztietan.

3.15 artikuluak, *Berrikuntza, gardentasuna eta kontu ematea,* jasotzen du: EAEko botere publikoek berdintasun-politiken berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatu behar dute, eta gardentasuna eta herritarrei kontu ematea bermatu, baliabide publikoen bidez emakumeen eta gizonen berdintasunari nola laguntzen zaion azaltzeko.

15.1. artikuluak, *Aurrekontuak*, jasotzen du: EAEko administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren aurrekontu publikoetan, bereziki haiek taxutzeko fasean, emakumeen eta gizonen premia diferenteak kontuan izateko eta berdintasuna sustatzen eta sexuan oinarritutako desberdinkeriak desagerrarazten laguntzeko.

Horretarako, gidalerroak ezarri behar dituzte, eginkizun hori gauzatzeko, horri jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, eta trebakuntza-prozesu egokiak abiarazteko.

15.2. artikuluak jasotzen du: Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiaren 2. helburuak jasotzen duenez, Berdintasun

objetivo general de eliminar las desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres.

A efectos de esta ley, se entiende por integración de la perspectiva de género la consideración sistemática de las diferentes situaciones, condiciones, aspiraciones y necesidades de mujeres y hombres, incorporando objetivos y actuaciones específicas dirigidas a eliminar las desigualdades y promover la igualdad en todas las políticas y acciones, a todos los niveles y en todas sus fases de planificación, ejecución y evaluación.

Artículo 3.15. *Innovación, transparencia y rendición de cuentas*, establece que: Los poderes públicos vascos deben fomentar la innovación y la mejora continua de las políticas de igualdad y garantizar la transparencia y la rendición de cuentas a la ciudadanía sobre cómo se contribuye a la igualdad de mujeres y hombres a través de los recursos públicos.

Artículo 15.1. *Presupuestos*, establece que: 1. Las administraciones públicas vascas han de integrar la perspectiva de género en sus presupuestos públicos, en particular en su fase de diseño, con el fin de que sean sensibles a las diferentes necesidades de mujeres y hombres y de que contribuyan a promover la igualdad y a eliminar las desigualdades en función del sexo.

A tal fin, deben establecer las correspondientes directrices para su realización, seguimiento y evaluación, así como los oportunos procesos de capacitación.

Artículo 15.2. Las administraciones autonómica, foral y local consignarán y especificarán anualmente en sus respectivos presupuestos los recursos económicos necesarios para el ejercicio de las funciones y la ejecución de medidas previstas en la presente ley.

El objetivo 2 de la Estrategia 2030 para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAE recoge que el presupuesto de las Políticas de

Politiken aurrekontua Euskal administrazio publikoen aurrekontuaren % 1,5 gutxienez berdintasun politikak garatzeko erabiltzea.

Estrategia horren barruan, I. ardatzak (Gobernu Ona), 1. helburu estrategikoan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunarekiko konpromiso politikoa bermatzea ezartzen du. Eta 4. lerroan, baliabide ekonomikoei buruzkoan, honako helburu espezifiko hauek biltzen dituzte:

I-1.13. Aurrekontu orokorrak: Berdintasunerako Legea garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak (berdintasunerako erakunde eta egiturak) aurrekontu orokorretan esleitzen eta zehazten dituzten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea.

I-1.14. Aurrekontu orokorrak Aurrekontu espezifikoak: EAEko administrazio publikoetako sail, zuzendaritza edo arloen kopurua handitzea, beren aurrekontu-partidetan berdintasun-politika garatzeko behar dituzten baliabide ekonomikoak urtero esleitzen eta zehazten dituztenak.

I-1.15. Berdintasun Unitateen aurrekontuak: Berdintasunerako unitateetan beren helburuak betetzeko behar adinako aurrekontu-zuzkidura duten euskal herri-administrazioen kopurua handitzea.

Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak egiteko jarraibideak, 2024ko maiatzaren 6an Udalbatzak onartuta.

3.- KONTRATUAREN HELBURUA

Helburu orokorra prozesu progresibo eta mailakatu bati ekitea da, barne-izaerako lan-metodologia bat identifikatu, aztertu eta sistematizatu ahal izateko. Prozesu horren bidez, epe ertainean, Tolosako Udalak udal-aurrekontuari buruzko urteko txosten bat egin ahal izango du genero-ikuspegiarekin, genero-

Igualdad se destine, al menos, a un 1,5 % del presupuesto de las administraciones públicas vascas para el desarrollo de políticas de igualdad.

Dentro de esta estrategia, el Eje I (Buen Gobierno), en su Objetivo Estratégico 1, establece garantizar el compromiso político con la igualdad de Mujeres y Hombres. Y en la Línea 4, sobre recursos económicos, se incluyen los siguientes objetivos específicos:

I-1.13. Presupuestos Generales: incrementar el número de instituciones públicas vascas que asignan y concretan en sus presupuestos generales los recursos económicos necesarios (instituciones y estructuras para la igualdad) para el desarrollo de la Ley para la Igualdad.

I-1.14. Presupuestos Generales Presupuestos Específicos: incrementar el número de departamentos, direcciones y/o áreas de las administraciones públicas vascas que asignan y especifican anualmente en sus partidas presupuestarias los recursos económicos necesarios para el desarrollo de la política de igualdad.

I-1.15. Presupuestos de las Unidades de Igualdad: Incrementar el número de administraciones públicas vascas que cuentan con dotación presupuestaria suficiente para el cumplimiento de sus objetivos en las Unidades de Igualdad.

Directrices para la realización de evaluaciones previas de impacto de género, aprobadas por el Pleno el 6 de mayo de 2024

3.- OBJETO DEL CONTRATO

El objetivo general es el iniciar un proceso de carácter progresivo y gradual que permita identificar, analizar y sistematizar una metodología de trabajo de carácter interno, dirigida a que en medio plazo, el Ayuntamiento de Tolosa pueda comenzar a elaborar un informe anual sobre el presupuesto municipal

arrakalak murrizteko eta desberdinkeriak iraunarazten dituzten faktoreak ezabatzeko.

Aurrekontuak desberdintasunen murrizketan eragin positiboa izan dezan, beharrezkoa da berdintasun-printzipioa prestaketa-fasetik zeharkakotzea, plangintzan kontuan hartzea eta genero-arrakalen emaitzak egiaztatzea, aurrekontu-ekitaldia itxi eta ebaluatu ondoren.

Gainera, lantze-prozesua aldatzea dakar, emakumeen eta gizonen posizio ekonomiko, politiko eta sozial desberdina kontuan hartzea dakar, eta politika publikoek batzuetan eta besteetan izan ditzaketen inpaktuak identifikatzea, berdintasuneranzko aurrerapenean berregokitzeko.

Kasu horretatik abiatuta, helburu espezifikoak definitzen dira:

- Genero-ikuspegia sartzea aurrekontuari buruzko erabakiak hartzeko funtsezko aldagai gisa.

- Politikariak eta teknikariak sentsibilizatzea eta udal-sailen konpromiso handiagoa lortzea berdintasunarekiko, aurrekontu-esleipenetan islatuta. Helburua da genero-ikuspegia duen aurrekontu bat egiteak zer esan nahi duen jakitea. Aurrekontuen arloko kontzeptuei buruzko prestakuntza eman behar da.

- Aurrekontua egiteko dinamika, egitura eta dokumentazioa aztertzea. Hau da, aurrekontuaren proposamenak aurkezterakoan arloak Esku Hartze Zerbitzura bidaltzen dituen prozesua, dokumentazioa eta informazioa ezagutzea da kontua, baita ikuspegi berri hori txertatu ahal izateko aurrekontua diseinatu, egin eta onartzeko sistematika edo prozedura ere.

- Aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan duten eragina ezagutzea, eta, ahal den neurrian, diskriminazio-egoerak

con perspectiva de género, para reducir las brechas de género e influir en la eliminación de los factores que perpetúan las desigualdad.

Para que el presupuesto tenga un efecto positivo en la reducción de las desigualdades, implica transversalizar el principio de igualdad desde la fase de la elaboración, tenerla presente en la planificación y comprobar los resultados de las brechas de género una vez cerrado y evaluado el ejercicio presupuestario.

Además, implica un cambio en el proceso de elaboración, supone tener en cuenta la distinta posición económica, política y social de mujeres y hombres, e identificar los impactos que en unos y otras podría tener las distintas políticas publicas para reajustarlas en el avance hacia la igualdad.

Partiendo de este supuesto, se definen los objetivos específicos:

- Introducir la perspectiva de género como variable clave a la hora de tomar decisiones sobre el presupuesto.

- Sensibilizar al personal político y técnico y lograr un mayor compromiso de las áreas municipales hacia la igualdad, reflejado en consignaciones presupuestarias. Se trata de facilitar conocimientos sobre qué significa el elaborar un presupuesto con perspectiva de género. Es necesario impartir una formación de los conceptos en materia presupuestaria.

- Analizar la dinámica de la elaboración del presupuesto, su estructura y la documentación. Es decir, se trata de conocer cuál es el proceso, documentación e información que remite cada área al Servicio de Intervención a la hora de presentar las propuestas del presupuesto y la sistemática o procedimiento de diseño, elaboración y aprobación del presupuesto para poder integrar esta nueva perspectiva.

- Conocer el impacto de los presupuestos sobre las mujeres y hombres, poniendo en foco en la medida de lo posible, a otros

eragin ditzaketen beste faktore batzuei arreta jartzea, hala nola adinari, arrazari, koloreari, jatorri etniko eta sozialari, migrazio-egoerari eta errenta-mailari.

- Gastuaren arloen, gastu-politiken eta programa funtzionalen araberako banaketaren lehen azterketa orokorra egitea.

- Barne-metodologia bat definitzea, udalaren tamaina eta baliabideak kontuan hartuta, kudeatzen dituen aurrekontu-programetan genero-ikuspegia aztertzen eta txertatzen pixkanaka aurrera egiteko.

4.- LAN-METODOLOGIA

0.- Prozesua hasi aurretik

- Konpromiso politikoa berrestea, prozesua luzaroan bermatzeko eta bultzatzeko, hausnarketarako eta epe ertain eta luzerako ezarpenerako ikuspegia eskatzen baitu.

- Berdintasuna Sailaren eta ogasuneko arloaren (Kontu Hartzailetza) baterako lidergoa: prozesu osoa, haren plangintza eta erantzukizunak adostea eta negoziatzea, lankidetza-giroa sustatzeko, bi organoen arteko komunikazio erregularrarekin, prozesuari buruzko erabaki adostuak errazago hartzeko.

- Prozesuaren funtsezko alderdiak, jarraitu beharreko eredua eta ikuspegi estrategikoa ezartzea, urtero txosten bat egitera mugatuko ez dena, baizik eta pixkanaka garatuko dena, urtez urte. Garrantzi berezia hartuko dute parte-hartzeak eta adostasun politiko-teknikoak, udalaren errealitatera egokituta.

1.- Prozesua hasteko baldintzak sortzea

- Prozesuan esku hartzen duten organoak identifikatzea, prozesuaren organo bultzatzailetik hasi eta organo operatibo eta

factores que puedan dar lugar a situaciones de discriminación como la edad, la raza, el color, el origen étnico y social, la situación migratoria y el nivel de renta.

- Realizar un primer análisis general de la distribución del gasto por áeas, políticas de gasto y programas funcionales

- Definir una metodología interna que teniendo en cuenta la dimensión y recursos del Ayuntamiento, permita avanzar progresivamente en el análisis e integración de la perspectiva de género en los programas presupuestarios que gestiona.

4.- METODOLOGÍA DE TRABAJO

0.- Previo al inicio del proceso

- Ratificar el compromiso político para garantizar e impulsar el proceso de manera prolongada en el tiempo, ya que requiere de un enfoque de reflexiesión y de implementación a medio y largo plazo.

- Coliderazgo del Área de Igualdad y el Área de Intervención: Convenir y negociar el proceso en su conjunto, su planificación y responsabilidades, para fomentar un ambiente de trabajo colaborativo, manteniendo una comunicación regular entre ambos órganos para favorecer las decisiones consensuadas sobre el proceso.

- Establecer los aspectos clave del proceso, el modelo a seguir, su visión estratégica, que no se reduzca a la elaboración anual de un informe, sino que se vaya desarrollando de manera progresiva, año tras año, adquiriendo especial relevancia la participación y el consenso político-técnico, adaptado a la realidad del Ayuntamiento

1.- Crear las condiciones para iniciar el proceso

- Identificar los órganos intervenientes en el proceso, desde el órgano impulsor del proceso hasta los órganos operativos y decisorios.

erabakitzaileetaraino.

- Prozesua osatzen duten sailak identifikatzea. Sailaren aurrekontu-programak definitzeko ardura duten teknikariak izendatzea Berdintasuna eta Kontu Hartzailetza arloaren solaskide, prozesuaren barruan garatzen diren faseetan. Aldi berean, bere sailari dagozkion prozesuaren barruan zehazten diren jarduerak gauzatzeko arduradun gisa ezarriko da.

- Identificar los departamentos integrantes del proceso. Nombrar como parte interlocutora con el Área de Igualdad e Intervención al personal técnico responsable de definir los diferentes programas presupuestarios de su área en las diferentes fases que se vayan desarrollando dentro del proceso. Estableciéndose, al mismo tiempo, como responsables de llevar a cabo las actividades que se definan dentro del proceso relativas a su departamento.

- Udal-sailen abiapuntuko egoeraren diagnostiko txiki bat egiteko eta baloratzeko informazioa biltzea, datuak sexuaren arabera banakatzeko erabilerari dagokionez, aurrekontu-programen eremuan emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen genero-arrakalak eta egoera detektatzeko eta ikusarazteko. Genero-adierazleen erabilera, genero-desberdintasunak agerian uzteko, ezaugarritzeko eta kuantifikatzeko, eta horiek abian jartzeak aurrekontu-politiken aurrerapenean dituen ondorioak eta eraldaketa behatzeko. Genero-analisiaren erabilera, gizonen eta emakumeen rol, premia eta aukera desberdinak eta horien arteko harremanak identifikatzeko, ulertzeko eta azaltzeko tresna gisa.

- Recabar información para valorar y elaborar un pequeño diagnóstico de la situación de partida de los departamentos municipales, en relación con la utilización de la desagregación de los datos en función del sexo, de cara a detectar y visibilizar la situación y las posibles brechas de género entre mujeres y hombres en el ámbito de los programas presupuestarios. El uso de los indicadores de género, con el objeto de evidenciar, caracterizar y cuantificar las desigualdades de género y observar los efectos y la transformación de su puesta en marcha, en el avance de las políticas presupuestarias. El manejo del análisis de género, como instrumento para identificar, comprender y explicar los diferentes roles, necesidades y oportunidades de hombres y mujeres y las relaciones entre ellos.

- Prozesua hasteko eta ondoren garatzeko beharrezkoak diren komunikazio- eta prestakuntza-ildoak definitzea, hala badagokio. Langileak edo organo hartzaileak eta eduki orokorrak identifikatuta.

- Definir las líneas de comunicación y formación, en su caso, necesarias para el inicio y desarrollo posterior del proceso, identificando personal u órganos destinatarios y contenidos generales.

2.- Udal-errealitatera egokitutako lan-metodologia bat egiteko prozesua.

2.- Proceso de elaboración de una metodología de trabajo adaptada a la realidad municipal.

Antolaketa-egiturarekin eta Udalaren barne-prozedurekin bat datorren metodologia bat egitea baloratuko da. Horretarako, jarduketa sekuentzial batzuk antolatu beharko dira:

Se valorará la elaboración de una metodología que se ajuste de manera coherente a la estructura organizativa y a los procedimientos internos del Ayuntamiento. Para ello, será necesario articular una serie de actuaciones secuenciales:

2.1- Egoeraren hasierako ebaluazioa, arreta honako alderdi hauetan jarrita:	2.1- Evaluación inicial de la situación, centrando la atención en los siguientes aspectos:
- Aurrekontu-programei atxikitako helburuak, adierazleak eta abar egotea, baita prozesurako egokia izan daitekeen bestelako informazio osagarria ere, eta udal-aurrekontuari erantsitako dokumentazioan sartzea.	- Existencia de objetivos, indicadores etc, adscritos a los diferentes programas presupuestarios, además de otra información complementaria que pueda ser pertinente para el proceso y su incorporación a la documentación anexa al presupuesto municipal.
- Aurrekontuaren banaketa, aurrekontuen izaerako sailkapen desberdinetan.	- Distribucción del presupuesto en sus diferentes clasificaciones de carácter presupuestario.
- Identifikatutako berdintasunaren arloan esku hartzeko lehentasunezko eremuak, eta horien aurrekontu-isla.	- Ámbitos prioritarios de intervención en materia de iguladad identificados, y su reflejo presupuestario.
2.2- Prozesuari aplika dakizkiokeen irizpide metodologikoak ezartzea:	2.2- Establecimiento de criterios metodológicos aplicables al proceso:
- Aurrekontu-programak berdintasunera eraldatzeko duten ahalmenaren eta gai horretara bideratutako gastu motaren arabera sailkatzeko irizpideak zehaztea.	- Determinación de criterios para clasificar los programas presupuestarios en función de su potencial transformador hacia la igualdad y del tipo de gasto destinado a esta materia.
- Genero-ikuspegia aurrekontu-programetan pixkanaka integratzea ahalbidetuko duen barne-prozedura bat diseinatzea, beharrezko euskarri-dokumentazioa barne.	- Diseño de un procedimiento interno que permita integrar de manera progresiva la perspectiva de género en los distintos programas presupuestarios, incluyendo la documentación de soporte necesaria.
- Epe ertainean, urteko txosten bat egiteko behar diren baliabideak ebaluatzea. Txosten horrek aurrekontuarekin batera joan behar du, eta agerian utzi behar du genero-ikuspegia txertatu dela, bai eta aurrekontuaren egitura orientagarriaren proposamena ere.	- Evaluación de los recursos requeridos para la elaboración, en un plazo medio, de un informe anual que acompañe al presupuesto y evidencie la incorporación de la perspectiva de género, así como una propuesta de estructura orientativa del mismo.
2.3.- Inplementazioa eta emaitzen analisia:	2.3.- Implementación y análisis de resultados:
- Jasotako informazio-liburukian eta operatiboan lortutako emaitzen balantzea egingo da.	- Se realizará un balance de los resultados obtenidos tanto del volúmen de información recogida, como de la operativa.
- Hobekuntza-ildoak eta/edo aldaketa operatiboak identifikatzea.	- Identificación de líneas de mejora y/o cambios operativos.

- Aurrekontuak berdintasunaren arloan duen eraginaren azterketa

2.4.- Prozesuaren emaitzen urteko jaulkipena. Urteko txosten bat egingo da, prozesuaren garapena islatzeko eta lortutako emaitza nagusiak laburbiltzeko.

6.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Enpresa esleipendunak Berdintasuna Saila eta ogasunaren arloa (Kontu Hartzailetza) zuzendu, lagundu eta koordinatu beharko ditu Tolosako Udalaren aurrekontuaren diseinuan, garapenean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzeko prozesu osoan.

Zerbitzu hori emateko, urtean 220 ordu inguru egiten dira; horietatik 40 ordu presentzialak dira, eta 180 bulego-lana egiteko. Enpresa adjudikaziodunak gutxienez 40 ordu presentzial eman beharko ditu prozesuaren buru diren bi sailekin bilerak egiteko, bai eta beste sail batzuekin koordinazio-bilerak egiteko eta prozesua garatzeko behar den prestakuntza emateko ere. Aurrez aurreko orduen gutxieneko kopurua eskaini egingo da, eta pertsona edo enpresa lizitatzaileak ordu gehiago eskaini ahal izango ditu, administrazio-klausula partikularren agirian jasotzen den bezala.

Zerbitzu hau ezartzeko faseak eta kronograma enpresa esleipendunaren eta prozesu honen buru diren sailen arteko lehen bileran egokituko dira.

Udalaren jarraibideak errespetatu eta bete beharko ditu zerbitzua ematean.

Kontratu honekin eman beharreko zerbitzuagatik adjudikazio-hartzaileak jasotako informazio guztia konfidentziala dela ulertuko da, eta datuen identitatea eta konfidentzialtasuna gordeko du. Datu edo informazio horri dagokion isiltasun

- Análisis del impacto del presupuesto en materia de igualdad

2.4.- Emisión anual de los resultados del proceso. Se generará un informe ejecutivo anual que refleje el desarrollo del proceso y resuma los principales resultados obtenidos.

6.- CARACTERÍSTICAS DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO

La empresa adjudicataria deberá de dirigir, acompañar y coordinar al Área de Igualdad y al de Intervención en todo el proceso de la incorporación de la perspectiva de género en el diseño, desarrollo y evaluación del presupuesto municipal del Ayuntamiento de Tolosa.

Para la prestación de este servicio se hace una estimación de 220 horas anuales, de las cuales, 40 horas son presenciales y 180 son para el desempeño de trabajo de despacho. Como mínimo, la empresa adjudicataria deberá dedicar 40 horas presenciales para reuniones con los dos departamentos que colideran el proceso, así como reuniones de coordinación con otros departamentos y la formación necesaria para el desarrollo del proceso. El mínimo de horas presenciales será objeto de oferta, pudiéndose ampliar por parte de la persona o empresa licitadora, Tal y como se recoge en el PCAP.

Las fases y el cronograma para la implementación de este servicio, se ajustarán en la primera reunión que se celebre entre la empresa adjudicataria y los departamentos que colideran este proceso.

Deberá respetar y cumplir las instrucciones del Ayuntamiento en la prestación del servicio.

Se considerará confidencial toda la información que, a consecuencia del servicio a prestar con este contrato, reciba la adjudicataria, que deberá guardar la identidad y la confidencialidad de los datos. La empresa será responsable de los daños causados por

profesionala ez gordetzeagatik eragindako kalteen erantzulea enpresa izango da, nahiz eta kalteak haren menpeko langileek eragindakoak izan.

7.- LANTALDE TEKNIKOAREN BALDINTZA PROFESIONALAK

Kontratuaren betearazpenari atxiki beharreko gutxieneko taldea koordinatzaile batek eta administrari batek osatuko dute.

Proiektua koordinatzen duen pertsonari eskatzen zaion titulazioa:

- Orientazio gisa soilik, eta inola ere ez murriztaile gisa, goi-mailako unibertsitate-ikasketak baliozkoak izango dira Humanitate, Gizarte Zientzia eta Zientzia Juridikoen arloetan.

- Halaber, genero-berdintasunari buruzko unibertsitate-master ofiziala izan beharko du.

- Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna eta euskaran C1 maila.

8.- BALIABIDEAK

Lantokia, lokala, beharrezko materialak eta lan telematikoak egiteko beharrezko gastuak (ordenagailu eramangarriak, wifiak, telefonoak edo antzekoak) enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

9.- HIZKUNTZA-BALDINTZAK

Zerbitzua ematean bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatiko da.

no guardar el secreto profesional correspondiente a dichos datos o información, aunque hayan sido causados por el personal a su cargo.

7.- REQUISITOS PROFESIONALES DEL EQUIPO TÉCNICO

El equipo mínimo a adscribir a la ejecución del contrato estará compuesto por una persona coordinadora y otra administrativa.

Titulación exigida a la persona que coordina el proyecto:

- Únicamente a título orientativo, y en ningún caso restrictivo, los estudios universitarios superiores serán válidos en las áreas de Humanidades, Ciencias Sociales y Jurídicas

- Asimismo, deberá poseer un máster universitario oficial en igualdad de género.

- Competencia comunicativa en las dos lenguas oficiales de la Comunidad y nivel C1 de euskera

8.- RECURSOS

El lugar de trabajo, los materiales necesarios y los gastos necesario para prestar las tareas telemáticas (portátiles, wifi, telefónos o similares) serán de cuenta de la empresa adjudicataria.

9.- CONDICIONES LINGÜISTICAS

Se garantizará el uso de ambas lenguas oficilaes en la prestación del servicio.